

2017ko AZAROAK 14ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hamazazpiko azaroak hamalau.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jule Aranburu Mariezkurrena.
Asier Aguirre Murguiondo.
Xabier Aranburu Altuna.
Ion Mujika Perez.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Julen Zabala Garcia.

IDAZKARIA:

Iñaki Alonso Antolín.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko ordubiak.

AMAIERA ORDUA: Arratsaldeko ordubi tèrdiak.

1.- Aurreko aktaren onspena.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako akta irakurri ondoren, 2017-10-04 ohikoa aho batez onartzen da.

2.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

ZKIA	KONZEPTU	ZENBATEKOA
1	MUTILOAKO OSTATUA: EMANDAKO ZERBITZUAK	97,80
2	GOIMEN: BIDE DESBROZAKETA	698,78
3	IZFE: HOSTING	36,3
4	ILARKI: ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA IRAILA	1545,60
5	ILARKI: ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA URRIA	1545,60
6	CORREOS: POSTA KUOTAK IRAILA	5,58
7	MAIDER ROMO: HIRIGINTZA AHOLKULARITZA	190,8

8	ARRATE IRRATIA: LIERNIKO JAIK	108,90
9	IKERTZE: HIP HIP URRI	100
10	MONTTE: BULEGO MATERIALA	174,24
11	MUJKA JATETXEA: ZERBITZUAK	115,72
12	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	23,58
13	PASKIN: SEINALIZAZIOA	1234,2
14	ONDARRE: TXERRI AZOKAKO GASTUAK	167,96
15	GIPUZKOAKO MENZDIZALE FEDERAZIOA: SL-GI	302,02
16	GIPUZKOAKO MENZDIZALE FEDERAZIOA: PR-GI	476,26
17	CORREOS: POSTA KUOTAK URRIA	11,35
18	BURDUNTZI ERRETZAILEAK: TXERRIA ERRETZEA	1442
19	ARTETXE: URTEAGAKO BIDEA KONPONTZEA	19033,30
20	TXERRI GORRI ELKARTEA: TXERRI AZOKAKO GASTUAK	184,75

3.- 2017/02ko Aurrekontuaren Kreditu aldaketaren onarpena.

2017/02 urteko Aurrekonturen Kreditu aldaketa ikusita eta Udal Idazkariak egindako txostena kontutan hartuta, aho batez hasierako onarpena egiten da. Jendaurrean jarriko 15 eguneko epean. Erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, beste akordiorik hartu gabe, behin betiko onartutzat emango da.

4.- Mutiloa Lantzen S.A. itxiera dela eta, ondasun, eskubide eta obligazio guztietan Udalaren subrogazioaren onarpena eta ihardueraren jarraipena.

Mutiloa Lantzen S.A. Udal enpresaren Junta Orokorrak gaur hartutako akordioak ikusita:

Junta uniberstal moduan osatuz, elkarteko kontuak eta administradoreen kudeaketa onartuz, enpresa deseginez, kitatzailea izendatuz, hasiera eta bukaerako balantzeak onartuz eta dagoen ondarea banatuz.

Hau guztia ikusita Osoko Bilkura honek aho batez onartzen du enpresak zuen ihardueraren jarraipena Udalak egitea eta ondasun, eskubide eta obligazio guztietan Udalaren subrogazioa. Kitatzailea Iñaki Ugalde Alustiza Alkateari izendatzea eta enpresa likidatzeko behar diren dokumentu publiko, nahiz pribatuak sinatzeko ahalmena ematea.

5.- Etxez etzeko laguntza zerbitzua esleitzeko Publizitaterik gabeko prozedura negaziatua jarraituz Baldintza Pleguen onarpena.

Jarraian, Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez etxez etxeko laguntza zerbitzua esleitzeko Baldintza Pleguak onartzen dira. Enpresa hauei proposamen bat aurkezteko gonbidapena egitea onartzen da: Ilarki Elkartea, G.S.R. S. Coop. eta Arreta Zerbitzuak S.L..

Baldintza Pleguaren laburpena hau da:

1.- KONTRATUAREN GAIA

Kontratu honen objektua da Mutiloako etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea.

Kontratazio hau zerbitzu-kontratu administratibo gisa gauzatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko xedatzen duenaren arabera.

CPV kodea: 85312000-9

2. EPEA

Prestazioa emateko epea guztira izango da BI URTEKOA, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Lanegunak: BEZ barne 19'96 euro/orduko.

Urteko 1.000 ordu aurreikusten dira.

Hori horrela, urteko aurrekontuaren estimazioa eurotako da 19,96 BEZa barne. Kontratuaren hasierako iraupenerako aurreikuspena (bi urte), 39.920 euro estimatzen dira.

4. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 169.etik 178. artikulura ezarritakoarekin bat etorritz, testu horren 174. artikuluan jasotako kasua baita.

Parte-hartzaileekin izango den negoziazioa kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistikoren ingurukoa izan daiteke.

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA PARTE HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA

Kontratazio honen espedientea aztertu ahal izango da:

LEKUA: Mutiloa Udaleko Idazkaritza. Herriko Plaza z/g. Mutiloa.

ORDUTEGIA: 8,30etatik 14:00etara.

Tel.- 943 800450

E.mail.- udala@mutiloa.eus

Eskaintzak arreta publikorako zehazturiko leku eta ordutegian aurkeztuko dira, gonbidapenetan azaltzen den epearen barruan.

Kontratistaren profilean iragarkia argitaratzen denetik 7 lanegun.

1.- *Proposamen ekonomikoa..... gehienez 25 puntu.*

- *Balorazio-irizpidea: 1 puntu, lizitazio-prezioa txikiagotzen duen 0,09 euroko*

2.- *Zerbitzugintza-proiektua: gehienez 25 puntu. Lizitatuzaileak dagokion errealitatearen ezagutzari eta egokitzapenari buruzko memoria xehatua eta justifikatua aurkeztu beharko du; eta, hain zuzen, memoria hori oinarritzat hartuko puntuak emateko.*

-Subrogatzeko langileak-

LANGILE-1.- LANALDIAREN %57,10. ANTZINATASUNA 2004-01-02

6.- Gurutze Gorriarekin hitzarmenaren onarpena.

Jarraian, Gurutze Gorriak proposatutako hitzarmena irakurtzen da. Hala dio:

Lehenengoa.- *Goierriko Gurutze Gorriak, Mutiloako prebentzio zerbitzu guztiak egingo ditu. Osasun zerbitzuetan beharrezkoak diren prebentzio zerbitzu guztiak egingo ditu. Ekitaldi guzti hauetarako Goierriko Gurutze Gorriak errekurtsio mugikorrak (4 anbulantzi) eta beharrezkoak diren giza-baliabideak jarriko ditu.*

Bigarrena.- *Zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatze arren, Mutiloako Udaleko Gizarte eta Kirol alorretako arduradunen eta Goierriko Gurutze Gorriko Osasun alorreko arduradunen arteko beharrezkoa den koordinazioa ezarriko da.*

Hirugarrena.- *Zerbitzu guztiengatik 1.225 €/ko urteko diru-laguntza izango du, akordioaren indarraldian zehar, eta Goierriko Gurutze Gorriko Eskualde-Batzarrak KUTXA entitatean, duen kontu zenbakian ordainduko da. Luzapenik egotekotan diru-laguntzak urtero itunduko dira Euskal Autonomia-Erkidegoaren KPI-a erreferentzia hartuz. Hitzarmenaren zenbateko oraingo akordioaren formalizazioan ordainduko da.*

Laugarrena.- *Hitzarmen honen aplikazioan agertzen den edozein desadostasun lehenik ebatziko da eta batera Goierriko gurutze Gorriko Eskualde-Batzordearen Lehendakariaren artean eta Mutiloako Udaleko Kultura, Gazteria eta Kirol Batzordeetako Lehendakariaren artean.*

Bosgarrena.- *Desadostasunak jarraituko balu bigarrenik igoko da Alkatetzara bere erabakirako.*

Seigarrena.- *Akordioak du 2017eko Urtarrilaren 1etik, 201eko Abenduaren 31ra arteko iraunaldia, du eta parteetako salaketaren bat, hilabete bateko aurrerapen txikienarekin, ez balitz egongo, urterako, era automatikoan luzatuta geratuko da.*

Zazpigarrena.- *Oraingo hitzarmen hau bertan behera geratzeko arrazoiak hauek izango dira:*

-Hitzarmen honetako edukiak ez betetzea.

-Hitzartutako zerbitzuen prestazioko jarraitutasunik eza.

Eta aurreko guztiaren inguruko adostasuna azalduz, sinatzen dugu akordio hau, hasieran adierazitako data eta lekuan.

Hitzarmen hau ikusita eta udalarentzako interesagarria izanik, Urtean zehar jaietan, txirringularitza probatan eta Txerri azoka egunean etortzen direla kontutan hartuta, aho batez onartzen da.

7.- Kataluniari buruzko adierazpenaren onarpena.

Segidan Kataluniaren egoerari buruzkoa adierazpen hau aho batez onartzen da:

“Kataluniako parlamentuak independentiaren adierazpena egin eta gero, erabaki historiko horrek Kataluniarentzat duen garrantziagatik eta baita Euskal Herriarentzat ere duen esanahiagatik, Mutiloako Udalak honakoa adierazten du:

- 1. Aitortza, errespetua eta afektua erakutsi nahi dizkio Kataluniako errepublikari.*
- 2. Exijitzen du Kataluniako herritarren borondatea errespetatzea, zeina behin eta berriro hautestontzietan, modu demokratikoak, adierazi den.*
- 3. Zorionak ematen dizkie Kataluniako herritarrei, gizarte eragileei, erakundeei eta alderdi politikoei. Eta modu berezian azken urteetan Giza Eskubideak, bakea, demokrazia eta askatasuna defendatuz izugarritzko ausardia eta konpromisoa erakutsi duten hautetsi guztiei. Eredu diraguretzat.*
- 4. Aldarrikatu nahi du Estaturik gabeko nazio guztien euren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea. Horregatik, eskatu nahi die euskal alderdi politikoei akordio batera iris daitezela eskubide hau legebiltzarrean eztabaidatzen ari diren autogobernu ponentzian jasotzeko.*
- 5. Onartzen du Adierazpen hau Kataluniako Generalitat-era, Kataluniako Parlament-era eta Kataluniako Independentziaren aldeko udalerrien elkartera (AMI) igortzea.”*

8.- Leader dirulaguntza.

Alkateak hitza hartzen du Eusko Jaurlaritzako Leader programako dirulaguntzatan Gabiriko udalarekin batera “Mutiloa-Gabiria” bidea egokitze proiektua aurkeztuko dela adierazteko. Porposamen honekin zinegotzi guztiak adostasuna adierazten da.

9.- Galde-erreguak.

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da Arratsaldeko ordubi tèrdiak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.